



Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarte  
Sociedad Informática del Gobierno Vasco

EJIE SAREN erregulazio harmonizatukoak ez diren kontratuak arautzeko jarraibideak

2017ko ekaina

Erreferentzia: Kontratzioko  
Barne Jarraibideak-2017ko ekaina

EJIE SA  
Mediterraneoaren hiribidea 14  
Tel.: 945 01 73 00\*  
Faxa: 945 01 73 01  
01010 Vitoria-Gasteiz  
Posta-kutxatila: 809  
01080 Vitoria-Gasteiz  
[www.ejie.es](http://www.ejie.es)

Dokumentu honen jabea EJIE SA da. Ezin da osorik edo zatika kopiatu, beste batzuei erakutsi, edo sortu zenerako helburuetatik at dauden bestelako helburuekin erabili, EJIE SAK lehenago idatzizko baimenik eman gabe. Kontratu baten barruan entregatzen bada, kontratuan berariaz baimendutako erabilera soilik izango du. EJIE SAK ez du erantzukizunik izango dokumentuaren edizioan akatsak edo hutsuneak badaude.

Edukia		
	Kapitulua/atala	Orrialdea
1	Aurrekariak eta ezaugarri juridikoak	3
2	Kontzeptu orokorrak	4
3	Kontratazio-ereduak	15
3.1.1.	A eredu sinplifikatua	16
3.1.2.	Espezialitateak:	17
3.1.3.	Publiko egin beharreko kontratazio-eredu sinplifikatua	19
3.1.4.	Erregulazio harmonizatukoa ez den kontratazio-eredu irekia	22
3.2	Beste prozedura batzuk	24
3.2.1.	Esparru-akordioak	24
3.2.2.	Lehia-elkarrizketa	25
	1. eranskina – Glosarioa	26
	Eranskina- Erregulazio harmonizatuko kontratueterako prozedura	27

Otsailaren 1eko 60/1982 Dekretuaren bitartez ezarri zen Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarte SAREN (aurrerantzean, EJI) eraketa. Gero, 20/2009 Dekretuaren bitartez, EJIren estatutuak aldatu ziren, *herri administrazioen eta bestelako botere esleitzzaileen baliabide propio eta zerbitzu tekniko gisa jarduten duten sozietateak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko legean zehazten diren betebeharrak egokitzeko*; horren arabera, baliabide propio eta zerbitzu teknikoaren ezaugarriak sozietatearen estatutuetan islatu behar dira.

EJIEk sektore publikoan jarduten du, Euskal Autonomia Erkidegoan. Merkataritza-sozietatea da, eta baliabide propioak eta EAEko Administrazioaren zerbitzu teknikoak erabiltzen ditu. Ez da administrazio publikoa, beraz, Administrazio Publikoa ez den botere adjudikatzailearen profilean (PANAP) sartzen da, kontuan hartuta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina (aurrerantzean SPKLTB) onartzen duen azaroaren 14ko 3/2001 Legegintzako Errege Dekretuaren 3. artikuluan ezarritakoa.

EJIEk egindako kontratuak pribatuak izango dira, eta SPKLTBn ezarritakoak arautuko ditu, kontratuak prestatzeari, adjudikatzeari eta aldatzeari dagokienez.

EJIEk onetsitako jarraibideak nahitaez bete behar dira sozietatearen barneko esparruan. Jarraibideok kontratazio-prozedura arautzen dute erregulazio harmonizatukoak ez diren kontratuetarako, eta xedea da gai horri buruzko Europar Batasuneko zuzentarauen oinarriak bermatzea da, bai eta zuzentarauen transposizioa ere. Funtsezko printzipioak honako hauek dira: publikotasuna, lehia, gardentasuna, konfidentzialtasuna, eta berdintasuna eta diskriminaziorik eza.

Hori guztia horrela bada ere, EJIren kontratazio-prozedura guztiak era berean eta dokumentu bakar batean sistematizatze xedez, barneko informazio gisa erantsi zaio dokumentu honi erregulazio harmonizatuko kontratuen prozedura, kontratu horiek nahitaez bete behar baitute SPKLTBn horrelako kontratuetarako ezartzen den guztia.

Kontratazioko barne-jarraibide horiek interesdun guztien esku ipiniko dira, EJIren kontratatzailearen profilean egingo baitira publiko ([www.ejie.eus](http://www.ejie.eus)).

## 2 Kontzeptu orokorrak

### 1- Kontratuak arautzeko printzipioak

Jarraibide hauek bete behar dituzten kontratuak SPKLTBren 1. artikuluan jasotako printzipioen arabera arautuko dira, eta kontratu horien adjudikazioa publikotasun, lehia, gardentasun, konfidentzialtasun eta berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioei jarraituta egingo da, SPKLTBren 191. artikuluaen arabera.

- Publikotasun-printzipioa: printzipio hau betetzeko, hedapen eta zabalkunderako bitarteko egokiak eta behar bezain eskuragarriak erabili beharko dira EJIEn kontratuei buruzko informazioa emateko, lizitatzailerik izan nahiko luketen guztien onerako.
- Gardentasun-printzipioa: printzipio hau betetzen dela joko da baldin eta kontratuari buruzko informazioa adjudikazioa egin baino lehen hedatu edo zabaltzen bada, informazio hori era berean aurkezten bazaie lizitatzailerik guztiei eta informazio egokia ematen bada edozein lizitatzailerik aukera izan dezan lizitazioan parte hartu nahi duela adierazteko. Horrek esan nahi du partaide guztiek aurretiaz jakin ahal izango dutela zein arau aplikatuko zaion adjudikatu nahi den kontratuari, eta, orobat, ziur jakingo dutela arau horiek berdin aplikatuko zaizkiela guztiei.
- Konfidentzialtasun-printzipioa: EJIek konpromisoa hartzen du ez zabaltzeko hautagaiek konfidentziaz jo duten informaziorik (baldin eta horretarako arrazoi justifikatuak badaude), eta, bereziki, ez zabaltzeko sekretu tekniko ez komertzialik, ez eta eskaintzetan adierazi den alderdi konfidentzialik ere. Era berean, enpresaburuek errespetatu egin beharko dute kontratua exekutatu ahal izateko eskuratuko duten informazio konfidentziala, hau da, konfidentziala dela adierazi den informazioa eta, nahiz eta horrelakoa dela adierazi ez, duen izaera kontuan hartuta konfidentzialki tratatu behar dena.
- Berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioa: Kontratazio-espeditentia osatzen duten dokumentuetan, EJIek beti deskribatuko du kontratuaren xedea diskriminaziorik ez eragiteko moduan, hau da, jatorri-fabrikazio jakin bat aipatu gabe, edo produktu berezirik edo marka, patente, eredu, jatorri edo produkzio jakinik aipatu gabe; hala ere, behar bezala justifikatzen bada, egin liteke horrelako erreferentziaren bat, betiere «edo baliokidea» aipamenarekin batera bada. Era berean, enpresa hautagaiei emandako epeak egokiak izango dira, eta aukera emango diete enpresei dagokion azterketa egiteko eta eskaintza aurkezteko. Halaber, Europar Batasuneko estatu kideetako hautagaiek tituluak, ziurtagiriak edo bestelako dokumentazio justifikagarriak aurkeztu behar badituzte, diplomak, ziurtagiriak eta tituluak elkarri aitortzeko printzipioari jarraitu beharko zaio. Hornitzaile batek baino gehiagok parte hartzen badu, EJIek bermatu beharko du guztiek dutela, baldintza berberetan, kontratuari buruzko informazio bera.
- Lehia-printzipioa: EJIek beharrezkotzat jotzen dituen neurri osagarriak hartu ahal izango ditu lizitatzailerik izan litezkeenek sarbidea izan eta parte hartu ahal izan dezaten, eskaintza ekonomiko onuragarrienari adjudikatzeko kontratua. (Tresna elektronikoen edo telematikoen bidezko abisuak hornitzaile ezagunei eta/edo hornitzaile izan litezkeenei eta beste batzuei).

EJIE SAK jarraibide hauen arabera izapidetuko dituen kontratazio-prozeduretan aipatutako printzipioak betetzen direla bermatzeko, kontratazio-organoen jardunak beti izango du helburu printzipio horiek betetzea.

Jarraibide hauetako apartatuetan aurreikusitakoa betetzen denean joko dira betetzat aipatutako printzipio horiek.

Jarraibideok aplikatzeko eta interpretatzeko, honako jardun-irizpide hauei jarraituko zaie:

- a) Publikotasun-printzipioa betetzen dela ulertuko da hedapen eta zabalkunderako bitarteko egokiak eta behar bezain eskuragarriak erabiltzen badira EJIEn kontratuei buruzko informazioa emateko, lizitatuak izan nahiko luketen guztien onerako eta merkatua lehiara irekitzeko aukera emateko.
- b) Gardentasun-printzipioa betetzen dela joko da baldin eta informazio egokia hedatu edo zabaltzen bada kontratuaren adjudikazioa egin baino lehen, eta informazio horrekin edozein lizitatuak izango bada aukera lizitazioan parte hartu nahi duela adierazteko. Era berean, printzipio honek dakarren betebeharra da partaide guztiek aurretiaz jakin ahal izango dutela zein arau aplikatuko zaion adjudikatu nahi den kontratuari, eta, orobat, ziur jakingo dutela arau horiek berdin aplikatuko zaizkiela entitate guztiei.
- c) Beharrezkotzat jotzen diren neurriak hartuko dira, jarraibide hauetan aurreikusitakoaren arabera, lizitatuak izan litezkeenek sarbidea izan eta parte hartu ahal izan dezaten, eskaintza ekonomiko onuragarrienari adjudikatzeko kontratua.
- d) Konfidentzialtasun-printzipioa errespetatu egingo da, eta, horretarako, EJIek konpromisoa hartzen du ez zabaltzeko enpresaburuek konfidentzialtzat jo duten informaziorik (baldin eta horretarako arrazoi justifikatuak badaude), eta, bereziki, ez zabaltzeko sekretu tekniko ez komertzialik, ez eta eskaintzetan adierazi den alderdi konfidentzialik ere. Era berean, printzipio horren aplikazioak eskatuko du enpresaburuek ere errespetatu egin beharko dutela kontratua exekutatu bitartean eskuratuko duten informazio konfidentziala, hau da, baldintza-agirietan edo kontratuan konfidentziala dela adierazi den informazioa eta, nahiz eta horrelakoa dela adierazi ez, duen izaera kontuan hartuta konfidentzialki tratatu behar dena.
- e) Berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioa bermatze aldera, prozeduretan inpartzialtasuna eta ekitatea bermatzeko behar diren neurriak hartuko dira. Neurri horien artean sartzen dira, gutxienez, honako hauek:
  - i) Kontratuen xedea diskriminaziorik ez eragiteko moduan deskribatuko da beti, hau da, fabrikazio edo jatorri jakin bat aipatu gabe, edo produktu berezirik edo marka, patente, eredu, jatorri edo produkzio jakinik aipatu gabe; hala ere, behar bezala justifikatzen bada, egin liteke horrelako erreferentziaren bat, betiere «edo baliokidea» aipamenarekin batera badao.
  - ii) Ezin izango da ezarri lehian parte har dezaketen Europar Batasuneko beste estatu kide batzuek zuzenean edo zeharka diskriminatzea eragin dezakeen baldintzarik.
  - iii) Hautagaiek tituluak, ziurtagiriak edo bestelako dokumentazio justifikagarriak aurkeztu behar badituzte, tituluak, ziurtagiriak eta diplomak elkarri aitortzeko printzipioari jarraituz onartu beharko dira beste estatu kide batzuek emandako dokumentuak.
  - iv) Interesa agertzeko edo eskaintza aurkezteko emandako epeak egokiak izango dira beste estatu kide batzuetako enpresek ere aukera izan dezaten ebaluazio egokia egin eta eskaintzak aurkezteko.
  - v) Adjudikazio-prozeduran hornitzaile batek baino gehiagok parte hartzen badu, EJIek bermatu beharko du guztiek dutela, baldintza berberetan, kontratuari buruzko informazio bera.

## 2- Aplikazio-eremua eta kontratu-motak

- Aplikazio-eremua:

SPKLTBk ezartzen du kostu bidezko kontratu guztiek bete beharko dutela testu bategin horretan ezarritakoa, izaera juridikoa edozein dutela ere, kontratuok lege horren 3. artikuluan zerrendatuta dauden ente, organismo eta entitateek egiten badituzte.

Beraz, aplikazio-eremu horretatik kanpo daude SPKLTBren 4. artikuluan zehaztutako negozio eta kontratuak.


Hori dela eta, EJIEk egindako kostu bidezko kontratuetan aplika daitezke jarraibide hauek, baina salbuespena izango dira honako hauek:

- SPKLTBren 4. artikuluan zehaztuta daudenak
- Erregulazio harmonizatuko kontratuak
- Lan-kontratuak eta bekadunekin egindakoak
- Aplikatu beharreko sektore-araudien araberrako beste batzuk.

- Kontratuen edukia

EJIEk egindako kontratuak EJIEk berak ezarritako eskaera/kontratua formatuaren arabera formalizatuko dira.

- Kontratu-motak:

-  Hornidura-kontratuak:

Horrelakoak dira EJIEk honako hauek eskuratzea xede dutenak:

- Produktu edo ondasun higigarrien eskuratze, finantza-errentamendu edo errentamenduak (erosteko aukerarekin zein gabe).
- Ez dira hornidura-kontratutzat hartuko jabetza gorpuzgabeak edo balore negoziagarriak hartzea xede duten kontratuak; hala eta guztiz ere, SPKLTBn ezarritakoa bete beharko da ordenagailu-programak xede dituzten kontratuetan.
- Hainbat ondasun jarraian eta unitateko prezioa entregatzeko betebeharra hartzea dakarten kontratuak, baldin eta kontratua egiten denean ez bada kopuru osoa zehaztu, ondasunak EJIEren premien arabera entregatu behar direlako.
- Telekomunikaziorako edo informazioa tratatzeko ekipoak eta sistemak edota horien gailuak eta programak eskuratu eta errentan hartzeko xedea dutenak, bai eta horien gaineko erabilera-eskubideak lagatzekoak ere; salbuespena izango dira neurria garatutako ordenagailu-programen kontratuak, zerbitzu-kontratutzat hartzen baitira.
- Fabrikaziokoak, enpresaburuak entregatu behar dituen gauzak EJIEk alde aurretik ezarritako ezaugarri berezi batzuen arabera egin behar direnean, nahiz eta EJIEk bere gain hartu beharrezkoak diren material guztiak edo batzuk emateko betebeharra.

### Zerbitzu-kontratuak:

Honako xede hau dutenak: jarduera bat garatu ahala gauzatu beharreko zerbitzuak eskaintzea, edo, obra edo hornidura batean, beste emaitza bat lortzera zuzentzen diren zerbitzuak eskaintzea. SPKLTBren II. eranskinean zehaztutako kategorietan daude sailkatuta.

Horrekin batera, neurrira garatutako ordenagailu-programen kontratuak ere zerbitzu-kontratutzat hartzen dira.

### Obra-kontratuak

Obra-kontratuak dira xedetzat obra bat egitea edo SPKLTBren I. eranskinean aipatzen diren lanetako bat gauzatzea dutenak, edo EJIek zehaztutako premiei erantzuten dien obra bat gauzatzea beste edozein bitartekoren bitartez. Dagokion proiektua idaztea ere jaso ahal izango du kontratuak.

Obra da eraikuntza-lan batzuen edo ingeniari-tza zibileko lan batzuen emaitza, ondasun higiezin batean eginkizun ekonomiko edo tekniko bat betetzeko xedea duena.

#### 3- EJIeren kontratazio-espeditentea

EJIeren kontratazio-espeditentea osatzen dute kontratazio-prozeduran sortzen diren dokumentu guztiek. Dokumentu horiek zenbakitu eta artxibatu egiten dira (paperean edo formatu elektronikoan), kontratuaren eta zenbatekoen arabera.

#### 4- Kontratuaren premia eta egokitasuna

SPKLTBk ezartzen duen bezala, beren xedeak betetzeko beharrezko diren kontratuak egingo dituzte sektore publikoko entitate eta organismoek. Hori dela eta, kontratazio-espeditente bakoitza onetsi aurretik, hausnarketa bat egingo da, gai hauek zehazteko: zein den kontratuaren xedea, zein premiari erantzun nahi zaion eta zein den prestazioaren edukia. Hortaz, premiaren eskaera egin eta sinatuko da. Eskaera hori EJIeren zerbitzu edo arloak proposatuko dio kontratazio-organoari, onetsi dezan.

#### 5- Kontratazio-organoak

EJIeren kontratazio-organoak, kasu bakoitzean, EJIeren estatutuetan eta EJIEn aplikatu behar diren gainerako xedapenetan aurreikusitakoaren arabera zehaztuko dira, hargatik eragotzi gabe beste organo batzuei behar bezala eman dakizkiekeen eskuordetze eta ahalordetzeak. Kontratazio-organoa, oro har, dagokion kontratuaren zenbatekoa zein den, honako hau izango da, nahiz eta merkataritza-esparruan alaketak (ahalordetzeak) egin ahal izango diren:

- sozietateko zuzendari nagusia, presidentea edo presidenteordea, bereizketarik egin gabe eta lehiatu beharrik gabe, baldin eta operazioa gehienez milioi bat (1.000.000) eurokoa bada;
- aurreko apartatuan zehaztu diren pertsonetatik bi mankomunatuta, baldin eta operazioa milioi bat (1.000.000) euro baino gehiagokoa eta gehienez bost milioi (5.000.000) eurokoa bada;
- administrazio-kontseilua, operazioa bost milioi (5.000.000) euro baino gehiagokoa bada.

## 6- EJIekin kontratatze gaitasuna

Nahitaez eta aurretiaz bete beharreko betekizuna izango da Europako Kontratazio Agiri Bakarra (aurrerantzean EKAB) aurkeztea erregulazio harmonizatuko kontratuetan, bai eta eskatzen den gainerako dokumentazioa aurkeztea ere, EJIekin kontratatzen duten pertsona fisiko edo juridikoen gaitasunari eta kaudimenari buruzko informazioari dagokionez. Hori horrela, pertsona fisikoek edo juridikoek, espainiar nahiz atzerritar izan, jarduteko gaitasun osoa baldin badute eta haien jarduna zuzenean badago lotuta kontratuaren xedearekin, nahitaez aurkeztu beharko dute kontratua behar bezala exekutatzeko nahikoa kaudimen eta elementu material eta pertsonal dutela egiaztatzen duen informazioa, dagozkien estatutuen edo sorrera-arauen arabera. Gainera, zergen eta Gizarte Segurantzaren inguruko betebeharrak betetzen dituztela egiaztatu beharko dute, ogasun egokiek (Estatuko ogasunak edo foru-aldundiko ogasunak) igorritako ziurtagiri administratiboak aurkeztuta. Era berean, adjudikaziodun izateko proposatu direnek kontratu bakoitzeko ezarri diren kaudimen tekniko edo profesionala eta ekonomikoa edo finantzarioa egiaztatu beharko dute. Horretarako, erreferentziatzen hartuko dira SPKLTBn ezarritako kaudimen-betekizunak edo kontratuaren xedeari jarraituta egokiak diren beste batzuk.

## 7- Baldintza-agiriak ezartzea

Oro har, kontratazio-eskaera guztiek eduki beharko dituzte batetik beharrezko dokumentuak eta, bestetik, dagokion arloko zuzendariaren eta kontratazio-zerbitzuko langile baimenduen oniritzia. Kontratazio-organoak ezin izango du kontratazio-eskaerarik egin.

50.000 euro baino gehiagoko kontratuetan, **baldintza zehatzen agiri bat (BZA)** egon beharko da, eta bertan ezarriko dira kontratuaren oinarritzko ezaugarriak, aldaerak onartzeko araubidea, eskaintzak hartzeko modalitateak, kontratuak adjudikatzeko irizpideak, eratu beharreko bermeak, eta abar.

Baldintza-agiri hori kontratuaren zatia izango da; dena dela, kontratu bakoitzaren zehaztapen teknikoak direla-eta, horrez gain, proiektu tekniko bat edo **baldintza teknikoaren agiri bat (BTA)** ere egon daiteke.

EJIeren Kontratazio Zerbitzuak prestatuko du baldintza zehatzen agiria, kasuan kasu ardura duen arlo teknikoak horretarako beharrezko den dokumentazio guztia bidali ondoren. Kontratazio-organoak onetsiko du baldintza-agiri hori. Organo horrek, bestalde, baimendu behar dituen kontratazioetarako baldintza-agiriaren ereduak erabiltzea onetsi ahal izango du.

Edonola ere, kontratazio-organoak onetsi beharko ditu baldintza-agiriak.

Eta, nolahi ere, onetsitako baldintza-agiriaren eta kontratazio-prozeduren berri eman beharko zaio zuzendaritza-batzordeari.

Baldintza teknikoak ezartzeari dagokionez, baldintza-agiriak prestatzeko arauak bete beharko dira, zehazki, SPKLTBn ezarrita daudenak.

- ✓ Hamazortzi mila euro eta berrogeita hamar mila euro arteko zerbitzuak edo hornidurak direnean, baldintza zehatzen agiria edo zehaztapenen dokumentua idatzi beharko da. Bertan, honako hauek jasoko dira: kontratuaren oinarritzko ezaugarriak, kontratuaren xedea, ezaugarri teknikoak eta alderdien betebeharrak, aldaerak eta/edo hobekuntzak onartzeko araubidea, eskaintzak hartzeko modalitateak, adjudikazio-irizpideak eta kontratazioaren izaera eta xedea kontuan hartuta aplikatu litezkeen beste klausula batzuk (konfidentzialtasuna, datu pertsonalen babesa, bermeak, etab.). 600 eurora arteko zerbitzu edo horniduretan, nahikoa izango da eskaintza eta dagokion faktura artxibatzea, eta ez da aplikatuko jarraibide hauetan A eredu sinplifikatu etarako ezarritako prozedura. Europar Batasuneko



estatu kideen edo hirugarrenen web-orrietan Internet bidez formalizatutako kontratuen kasuan, atxikitze-kontratuak izanik, ez da eskaerarik bidaliko.

- ✓ Gainerako espedienteak egiteko, arlo eskudunek (kontratuaren ardura duen arlo teknikoa eta kontratazio-saila) baldintza teknikoaren agiria eta baldintza zehatzen agiria idatziko dituzte, EJIEn onetsitako ereduak erabilita.

Baldintza-agiri horiek kontratuaren zatia izango dira.

- Baldintza zehatzen agiria. Baldintza zehatzen agiriak, besteak beste, lehia, gardentasun, konfidentzialtasun, eta berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak bermatuko dituzten irizpideak eduki beharko ditu, eta kontratua eskaintza ekonomiko onuragarrienari adjudikatuko zaiola bermatu beharko du. Hori gorabehera, kontratu-motaren eta adjudikazio-prozeduraren arabera, gerta liteke irizpide horiek baldintza teknikoaren agirian agertzea. EJIEn kontratazio-zerbitzuak egin beharko du, eta baldintza-agiriak idazteko beharrezkoak diren datu guztiak bidali beharko dizkio alde aurretik ardura duen arlo teknikoak. Araututa eta onetsita dauden ereduak erabiliko dira horretarako.

Proposamenak baloratzeko eta eskaintza ekonomiko onuragarriena zein den zehazteko, kontratuaren xedeari zuzenean lotutako irizpideei jarraituko zaie; esate baterako: kalitatea, prezioa, obra erabiltzeari edo zerbitzua emateari lotutako ordainsariak berrikusteko erabil daitekeen formula, prestazioa exekutatzeko edo entregatzeko epea, erabiltzeko kostua, ingurumeneko ezaugarriak edo premiei erantzuten dieten gizarte-eskakizunen asebetetzeari lotutako ezaugarriak, kontratuaren zehaztapenetan zehaztuta badaude (eta biztanleriako maila bereziki kaltetuei dagozkienak, kontratatu beharreko prestazioen erabiltzaile edo onuradunak kategoria horietako kide direnean), errentagarritasuna, balio teknikoa, ezaugarri estetiko edo funtzionalak, ordezeko piezak eskuratzeko aukera eta kostua, mantentze-lanak, laguntza teknikoa, saldu osteko zerbitzua edo beste antzeko zerbitzu batzuk.

Adjudikazio-irizpide bakar bat erabiltzen denean, irizpide hori, nahitaez, preziorik txikienarena izango da. Irizpide bat baino gehiago hartzen denean kontuan, irizpide horietako bakoitzari egozten zaion haztapen erlatiboa zehaztu beharko da, eta balio-tarte behar bezain zabal baten bidez adieraziko da hori.

Adjudikazio-prozedura hainbat fasetan antolatzen bada, irizpide bakoitza zein fasetan aplikatuko den adieraziko da; halaber, lizitatzaileriari hautaketa-prozesuan aurrera egin ahal izateko eskatuko zaion gutxieneko puntuazioaren atalasea zein den ere zehaztu beharko da. Aukeratutako irizpideak haztatzea posible izango ez balitz, garrantziaren arabera zerrendatuko dira irizpideok, garrantzi handiena duenetik garrantzi txikiena duenera.

- Baldintza teknikoaren agiria: bertan argi eta zehatz jasoko dira kontratuaren xedea eta ezaugarri teknikoak, bai eta kontratazioa zehazteko baliagarriak diren gainerako klausulak ere, eskaera ulertzen eta eskaintza teknikoak egiten lagunduko badiete lizitatzailerei. Araututa eta onetsita dauden ereduak erabiliko dira horretarako.

- Erantsitako dokumentuak. Baldintza berezien eta baldintza teknikoan agiriekin batera, beste dokumentu batzuk ere egin ahal izango dira publiko, baldin eta kontratazioa ulertzen eta eskaintzak prestatzen laguntzen badute.

Edonola ere, zenbatekoa kontuan hartuta kasuan kasu eskumena duen kontratazio-organoak onetsi beharko ditu baldintza-agiriak.

#### 8- Bermeak

SPKLTBn araututako bermeak eskatu ahal izango dira. Horrez gain, aldez aurretik arautu beharko da aukera hori baldintza zehatzen agirian; gainera, zehaztasunez arautuko da, adjudikaziodunei izapideak egiten laguntzeko xedez.

#### 9- Prezioak berrikustea

Prezioak, oro har, ez dira berrikusiko, baldintza zehatzen agiriak bestela ezarri ezean.

#### 10- Balio zenbatetsia eta BEZa

Kontratuetan balio zenbatetsia ezartzen baldin bada, edonola ere, BEZa (balio erantsiaren gaineko zerga) ez dagoela barne hartuta joko da. Kontratuak ezin dira zatikatu. Kontratazio-ko barne-jarraibide hauetan zehaztu diren zenbatekoak (eurotan), nolana ere, BEZik gabe adierazi direla joko da.

Hornitzaileei egin beharreko ordainketa guztiak transferentzien bidez egingo dira, baina horren aurretik eskaeraren baldintza guztiak bete diren ziurtatuko da, eta [www.ejie.eu](http://www.ejie.eu) web-orrian argitaratuta dagoen "Kontratatzeko baldintza orokorrak" dokumentuko 2.4 zenbakian ezarritako barne-kontrol guztiak egin diren ere egiaztatuko da.

#### 11- Kontratuen iraupena

Kontratuen iraupena ezartzeko, honako hauek hartuko dira kontuan: prestazioen izaera, prestazioen finantzaketaren ezaugarriak eta prestazioen gauzatzea aldi behin lehia bidez esleitu beharra. Hamazortzi mila euro baino gehiagoko kontratuak direnean, luzapen bat edo gehiago aurreikusi ahal izango dira, betiere, luzapenok irauten duten bitartean kontratuaren ezaugarriak aldatzen ez badira, eta kontratuak adjudikatzeko lehia kontratuaren gehienezko iraupena kontuan hartuta egin bada, luzapen-aldiak barne. SPKLTBn ezarritakoa beteko da. 18.000 euro baino gutxiagoko kontratuak ezin izango dira luzatu, eta urtebete iraungo dute gehienez.

#### 12- Kontratuen aldaketa

Baldintza-agiriek lizitazio bakoitzerako araubide aplikagarri ezberdin bat ezartzen dutenean izan ezik, kontratuen aldaketen baldintza eta ondorioak SPKLTBren 219. artikuluan –234., 296. eta 306. artikuluei lotuta– ezarritakoak izango dira.

Adjudikatutako kontratuaren kontratazio-organo berak baimendu beharko ditu aldaketa horiek.

Ez dira hartuko kontratuaren aldaketatzat kontratuaren xedearen zabaltzeak, baldin eta ezin badira hasierako proiektuan sartu kontratuaren zuzenketa baten bidez, edo erabilera edo aprobeixamendu independentea izateko

moduko prestazioa egin beharra badaukarte, edo kontratua prestatzeko dokumentazioan jasotzen ez diren beste helburu batzuk gauzatzeko badira. Zabaltze horiek bereizita kontratatu behar dira, eta, hala dagokionean, prestazio osagarriak kontratatzeke aurreikusitako den erregimena aplikatu ahal izango da, SPKLTBn aurreikusitako baldintzak betetzen baldin badira.

Kontratuak aldatu daitezke baldin eta baldintza-agirietan edo lizitazio-iragarkian beren-beregi adierazi bada aukera hori, eta argi eta zehatz azaldu badira aldaketa egiteko baldintzak, irismena eta mugak. Era berean, berariaz jasoko da kontratuaren prezioaren zein ehunekori eragin ahal izango zaion gehienez, bai eta zein prozedurari jarraitu beharko zaion ere.

### 13- Balorazio-irizpideak eta adjudikazio-proposamena

Proposamenak baloratzeko eta eskaintza ekonomiko onuragarriena zein den zehazteko, kontratuaren xedeari zuzenean lotutako irizpideei jarraituko zaie; esate baterako: kalitatea, prezioa, obra erabiltzeari edo zerbitzua emateari lotutako ordainsariak berrikusteko erabil daitezkeen formula, prestazioa exekutatzeko edo entregatzeko epea, erabiltzeko kostua, ingurumeneko ezaugarriak edo premiei erantzuten dieten gizarte-eskakizunen asebetetzeari lotutako ezaugarriak, kontratuaren zehaztapenetan zehaztuta badaude (eta biztanleriako maila bereziki kaltetuei dagozkienak, kontratatu beharreko prestazioen erabiltzaile edo onuradunak kategoria horietako kide direnean), errentagarritasuna, balio teknikoa, ezaugarri estetiko edo funtzionalak, ordeko piezak eskuratzeko aukera eta kostua, mantentze-lanak, laguntza teknikoa, saldu osteko zerbitzua edo beste antzeko zerbitzu batzuk.

Adjudikazio-irizpide bakar bat erabiltzen denean, irizpide hori, nahitaez, preziorik txikienarena izango da. Irizpide bat baino gehiago hartzen denean kontuan, irizpide horietako bakoitzari egozten zaion haztapen erlatiboa zehaztu beharko da, eta balio-tarte behar bezain zabal baten bidez adieraziko da hori.

### 14- Proposamenak baloratzea eta adjudikazio-proposamena

Kontratuaren arduradun teknikoak egingo du aurkeztutako eskaintzen balorazioa, baldintza-agirietan ezarri diren balorazio-irizpideei jarraituta. Balio-iritzi batean oinarritutako balorazio-irizpideak baldin badaude, bereizita aplikatuko dira, eta formulak aplikatuz soilik egindako balorazioaren aurretik. Horrela, ahalik eta objektibotasun handiena bermatuko da, balorazioak kutsatuko ez direla ziurtatuz.

Erregulazio harmonizatuko espedienteen kasuan, horretarako izendatutako hiru teknikoak taldeak egingo du balorazioa. Ondoren, kontratazio-mahaiari bidaliko dio txostena, eta hark, onesten badu, kontratazio-organoari bidaliko dio, adjudikazio-proposamenarekin batera.

Kontratazio-organoak egingo du adjudikazioa.

Adjudikazioen eta formalizatutako kontratuen berri emango zaio zuzendaritza-batzordeari, jakin dezan.

Kontratu guztietan egin beharko da adjudikazio-proposamen bat, eskaintzak baloratzeko txosten teknikoa egin ondoren. Txosten hori arduradun teknikoak edo baloraziorako talde teknikoak egin beharko du, eta dagokion arloko zuzendariak baliozkotu. Batak zein besteak beharrezkotzat jotzen dituzten txosten tekniko guztiak eskatu eta prestatu ahal izango dituzte.

Kontratuak, oro har, zuzendari nagusiak sinatuko ditu. Kontratuaren zenbatekoa dela-eta kontratazio-organoa mankomunatua bada, sinadura mankomunaturako ahalmena duten pertsonak sinatu beharko dute, indarreko ahalordetze-eskrituran ezarritakoari jarraikiz; edo kontratazio-organoa Administrazio Kontseilua baldin bada, kontratazio-organoak beren-beregi ahalordetu ondoren.

Adjudikazioa hautagai edo lizitatzaileri jakinaraziko zaie eta, aldi berean, kontratatzailearen profilean eta Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen Erregistroan egingo da publiko. Jakinarazpena egiteko moduari dagokionez, aukera eman beharko du jasota uzteko zein egun eta ordutan bidali edo helarazi den, eta hartzaileak zein egun eta ordutan jaso duen edo izan duen sarbidea.

#### 15- Lizitazioa hutsik geratuz gero jarraitu beharreko prozedura

Lizitazioa hutsik geratzen bada, eta aurretik prozedura irekia egin bada, SPKLTBren 170. artikuluan ezarritakoaren arabera, prozedura negoziatu bat izapidetuko da, gutxienez hiru eskaintza eskatuta eta aurretiaz publiko eginda, edo, bestela, beste prozedura ireki bat izapidetuko da.

#### 16- Eskaintzetan berdinketa egonez gero erabili beharreko prozedura

Eskaintza batek baino gehiagok puntu-kopuru bera jasotzen dutenean (gerta daiteke bi lizitatzailak eskaintzak aurkeztuz gero), zozketa egingo da eskaintza horien artean, adjudikazioa zeini egingo zaion zehazte aldera. Inguruabar hori beren-beregi jaso beharko da baldintza zehatzen agirian.

#### 17- Kontratazioen bermeak

Baldintza-agiriak bestelakorik adierazi ezean, urtebetekoa izango da kontratazioen berme-epea, produktua edo zerbitzua eragozpenik gabe jasotzen denetik aurrera zenbatzen hasita.

#### 18- Kontratuak suntsiaraztea

Lizitazio bakoitzeko baldintza-agiriekin bestelakorik adierazi ezean, kontratuak suntsiarazteko arrazoiak izango dira Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 223, 237, 299 eta 308. artikuluetan aipatutakoak.

Bereziki, SPKLTBren 233 g) artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratuak aurretiaz suntsiarazteko arrazoiak izango dira prestazioa hasieran adostutako moduan exekutatzeko ezintasuna edo prestazioa baldintza horietan exekutatzen jarraituz gero interes publikoari lesio larria eragiteko benetako arriskua, funtsean, arrazoi ekonomikoengatik edo/eta aurrekontuari lotutako arrazoiengatik.

#### 19- EJIEn kontratazioko barne-jarraibideen interpretazioa

EJIEn kontratazioko barne-jarraibideak interpretatzeko, jarraibideotan ezarritako terminoen definizioari jarraitu beharko zaio, eta jarraibideotan zehaztu ez direnei dagokienez, SPKLTBn duten esanahi bera izango dute. Halaber, kontratazioko barne-jarraibide hauen 1. eranskinean terminoen glosario bat dago, azalpen gehiago behar dezaketen terminoak zehaztuta.

#### 20- EJI E SAREN kontratatzailearen profila eta Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen Erregistroa

EJI E SAREN kontratatzailearen profila “[www.ejie.eus](http://www.ejie.eus)” web-orriko «kontratatzaile profila» atalean ikus daiteke. Bertan egingo dira publiko 50.000 euro edo gehiagoko lizitazio eta adjudikazioak, eta zehatz adieraziko da nor izan den adjudikazioduna eta zein izan den adjudikazioaren zenbatekoa.

Bestalde, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean ezarritakoa betez, eta kontratazioari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen Erregistroan alta emango zaio EJIEk egindako kontratazio guztien gaineko informazioari, baldin eta 5.000 euro baino gehiagoko zenbatekoa badute. Erregistro hori da, zehazki, Eusko Jaurlaritzak horretarako ezarri duena.

#### 21- Presazko kasuen izapideak egitea

Presazko kasuetan, izapidea bestelakoa izango da: laburtu egingo dira eskaintzak aurkezteko epeak edo murriztu egingo dira oro har ezarritako publikotasun-betekizunak, eta kontratua exekutatzea ere erabaki ahal izango da, aurretik kontratua formalizatu ez arren. Presazko kasuak eta horien ondorioak kontratazio-organoak baloratuko ditu kasu bakoitzean, SPKLTBren 112. artikuluan ezarritakoa kontuan hartuta.

#### 22- Klausula sozialak

Kontuan hartu behar da 6/2008 Ebazpena, ekainaren 2koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, Jaurlaritzaren Kontseiluak hartutako erabakia argitaratzeko dena; gaia: Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta bere sektore publikoaren kontratazioan gizarte-irizpideak, ingurumenekoak eta beste politika publikoak barne hartzea. Horren bidez argitaratu zen, hain zuzen ere, *“Kontratazioan gizarte-irizpideak, ingurumenekoak eta beste politika publikoak barne hartzeko jarraibidea”*. Bada, horren arabera, EJIEk gizarte-irizpideak eta ingurumenekoak sartuko ditu, ahal den neurrian, jarraibide horretan ezarritakoaren arabera, kontratuen baldintza-agirien aurreikuspenetan, adjudikazio-prozeduran eta kontratua exekutatzeko orduan. Hala ere, ez dira urratuko kontratu-jarduerari aplikatu beharreko printzipio orokorrak, bereziki lehia-printzipioa, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioa eta zerbitzuak emateko eta ondasunak zirkulatzeko askatasuna.

#### 23- Eskaintzak irekitzeko egintza publiko egitea

Eskaintza ekonomikoak jendaurrean irekiko dira, bai erregulazio harmonizatuko kontratuetan bai erregulazio harmonizatukoak ez diren kontratuetan. Bada, publiko egingo da non eta noiz irekiko diren eskaintzak, eguna eta ordua zehaztuz, nahi duenak bertaratu ahal izan dezan. Eskaintzak online irekitzen badira, berriz, URL baterako esteka bat jarriko da, egintza zuzenean, edo haren grabazioa, ikusi ahal izateko.

Publiko egin beharreko prozedura sinplifikatuetan, erregulazio harmonizatukoak ez diren prozedura irekietan eta erregulazio harmonizatuko prozedura irekietan, baldintza-agirietan jaso beharko da zein URL helbidetan ikusi ahal izango diren eskaintzak irekitzeko egintzak online eta offline. Bertan, honako informazio hau jaso beharko da:

Jarraian zehaztu den bezala egiten ditu EJIEk eskaintza teknikoak eta ekonomikoak irekitzeko egintzen emanaldiak erregulazio harmonizatuko espedienteetan eta erregulazio harmonizatukoak ez diren espedienteetan:

IREKIERA	BISTARATZE-MODUA	URL HELBIDEA
TEKNIKOA	OFFLINE	<a href="https://www6.euskadi.net/appcont/lizitazioa/diferido_es.html?video=EJIE-XXX-20XX-ETI.flv">https://www6.euskadi.net/appcont/lizitazioa/diferido_es.html?video=EJIE-XXX-20XX-ETI.flv</a>

EKONOMIKO A	ONLINE	<a href="https://www6.euskadi.net/lizitazioa/directo_ejie_es.html">https://www6.euskadi.net/lizitazioa/directo_ejie_es.html</a>
	OFFLINE	<a href="https://www6.euskadi.net/appcont/lizitazioa/diferido_es.html?video=EJIE-XXX-20XX-EEI.flv">https://www6.euskadi.net/appcont/lizitazioa/diferido_es.html?video=EJIE-XXX-20XX-EEI.flv</a>

*“Grisez ilundutako atalean, zein espedienteren irekiera bistaratuko dugun adierazi beharko da. Hau da, 001/2016 espedientearen irekierak bistartzeko, adibidez, 001-2016-ETI adieraziko da eskaintza teknikoen irekierarako, eta 001-2016-EEI, bestetik, espediente horren eskaintza ekonomikoen irekierarako”.*

**Bestalde, batetik, 2014/24/EB Zuzentaraua zuzenean aplikatzean eta, bestetik, Estatuko Ondare eta Kontratazioko zuzendariaren 2016ko abenduaren 19ko ebazpena argitaratzean (Ministroen Kontseiluaren 2016ko abenduaren 16ko erabakia argitaratzen duena, zeinaren bidez estatuko sektore publikoko erakundeei izapideak ematen zaizkien erregulazio harmonizatukoak ez diren kontratu jakin batzuk publiko egiteko), nahiz eta EJIE ez dagoen horien mende, ez delako horien eremu subjektiboan sartzen, positibotzat jotzen da publikotasun eta gardentasuneko bitartekoak indartzea. Halaber, B prozedura sinplifikatua aldatzen da, aurretiazko publiko egin beharrik gabeko negoziazioa baitzeukan tartean, eta, haren ordez, publiko egin beharreko prozedura sinplifikatua jartzen da.**

### 3 Kontratazio-ereduak

Jarraibide hauek aplikatzeko eta kontratu bakoitzaren adjudikazioari aplikatu beharreko prozedura eta betekizunak ezartzeko, honako kontratazio-eredu hauek bereizten dira:

- **Kontratazio-eredua: A eredu sinplifikatua.** Kontratu-eredu honi atxikita daude 18.000,00 euro baino gutxiagoko balio zenbatetsia duten kontratuak, obra-kontratuak izan ezik; kasu horretan, balio zenbatetsia 50.000,00 euro baino gutxiagokoa izango da. 600 eurora arteko kontratazioetan (zenbateko hori barne), kontratazio txikiak izanik, nahikoa izango da eskaintza eta dagokion faktura artxibatzea, eta ez da aplikatuko A eredu sinplifikatueterako ezarritako prozedura. Europar Batasuneko estatu kideen edo hirugarrenen web-orrietan merkataritza elektronikoaren bidez formalizatutako atxikitze-kontratuen kasuan, atxikitze-kontratuak izanik, ez da eskaerarik bidaliko.
- **Publiko egin beharreko kontratazio sinplifikatuaren eredua.** Kontratu-eredu honi atxikita daude hamazortzi mila (18.000,00) euro edo gehiagoko eta berrogeita hamar mila (50.000,00) euro baino gutxiagoko balio zenbatetsia duten zerbitzu- eta hornidura-kontratuak. Obra-kontratuak direnean, gutxienez berrogeita hamar mila (50.000,00) euroko eta berrehun mila (200.000,00) eurotik beherako balio zenbatetsia izan beharko dute.
- **Kontratazio-eredua: erregulazio harmonizatukoa ez den eredu irekia.** Kontratu-eredu honi atxikita daude 200.000,00 euro eta 5.224.999,99 euro arteko balio zenbatetsia duten obra-kontratuak; eta 50.000,00 euro eta 208.999,99 euro arteko balio zenbatetsia duten gainerako kontratuak.
- **Beste batzuk:**
  - **Kontratazio-eredua: esparru-akordioa.** Kontratazioaren arrazionalizazio teknikorako prozeduretan aplika daiteke, aurretiaz ezarritako ezaugarri teknikoak betetzen dituzten enpresaburu batzuen aurretiko hautaketa egin edo enpresaburuen poltsa bat sortu nahi denean, geroago enpresaburu horiekin kontratuak sinatuko direlako, eskaini dituzten prezioak kontuan hartuta.
  - **Lehia-elkarrizketa.** Prozedura honetan, hautagaiek eskatuta, kontratazio-organoak elkarrizketa bat izaten du hautagaiekin, premiei erantzuteko irtenbide bat edo gehiago garatzeko asmoz, irtenbide horiek izango baitira oinarri hautagaiek eskaintza aurkez dezaten.

### **3.1.1.A eredu sinplifikatua**

Kontratu-eredu honi atxikita daude 18.000,00 euro baino gutxiagoko balio zenbatetsia duten zerbitzu- eta hornidura-kontratuak; eta 50.000,00 euro baino gutxiagoko obra-kontratuak.

Hauetara dira eredu honen prozedura-faseak:

#### **3.1.1.1. Kontratazioaren premia**

Eskatzaileak kontratazioaren premia prestatuko du, eta arloko zuzendariak edo dagokion arduradun nagusiak eman beharko du horretarako baimena.

Premiaren deskribapenaren arabera, kontratazio-zerbitzuko langile baimenduak baliozkotuko du (ala ez) aplikatuko den kontratazio-eredua, eta zuzendaritza-batzordearen gain utzi ahal izango du baliozkotu gabe dauden premiei buruzko erabakia.

Eskaera egiteko arduraduna izendatuko da. Eskatzailea bera edo kontratazio-zerbitzuko langile baimendua izan daiteke.

#### **3.1.1.2. Adjudikazioa eta kontratazioa**

Eskaeraren arduradunak gaitasuna duen enpresaburu bati eskatu behar dio eskaintza bakar bat egiteko.

Eskaintza bat baino gehiago ere eska daiteke. Hala eginez gero, aplikatuko diren adjudikazio-irizpideen berri eman beharko zaie enpresaburuei.

Ez da beharrezkoa baldintza-agiriak prestatzea ez publiko egitea.

Eskatzaileak adjudikazio-proposamen bat ere egin beharko du kontratazio-eskaeran.

Eskatzailearen arloko zuzendariak kontratazio-eskaera baimenduko du (ala ez). Edozein momentutan kontsulta daiteke erabilitako eredia Kontratazio Sailean. Baimendu baldin bada, zuzendaritza-batzordeari jakinaraziko zaio, eskaera/kontratua formalizatu aurretik.

#### **3.1.1.3. Eskaera/kontratua kudeatzea**

Kontratazio-organoak eskaera/kontratua onetsiko du, sinaduraren bidez.

Kontratazio-zerbitzuko langile baimenduak eskaera/kontratua eta, halakorik egonez gero, beharrezko informazioa ere bidaliko diote hornitzaile adjudikaziodunari.



Publiko egin beharreko kontratuak direnean, EJI E SAREN kontratatzailearen profileen egingo da publiko adjudikazioa.

Kontratazio-zerbitzuko langile baimenduek kontratatu den produktu edo zerbitzua nola egiaztatuko den zehaztuko dute eskatzailearekin batera:

- Harrera egitean egiaztatuko da (harrera osoa edo partziala egitean).
- Lanak exekutatu bitartean egingo da jarraipena.

#### **3.1.1.4. 4 Eskaera/kontratua egiaztatzea**

Eskuratu den produktu edo zerbitzua eskatutakoarekin bat datorren egiaztatuko du eskatzaileak. Harrera egiten denean egiaztatzen bada, eskaera ixteko unean dokumentatuko da egiaztatze-lan horren emaitza. Egiaztatze-lana zerbitzua eman bitartean egiten bada, bestalde, dena delako prozesuaren jarraipena egiten den bitartean egingo da kontrola.

Kasu batean zein bestean, bat ez etortzeak gertatzen badira, kalitate-eskuliburuan esaten den moduan jardun beharko da.

Nolanahi ere, fakturak ordaindu aurretik, eskaeraren baldintza guztiak bete diren ziurtatuko da, eta [www.ejie.eu](http://www.ejie.eu) web-orrian argitaratuta dagoen “Kontratatze baldintza orokorrak” dokumentuko 2.4. zenbakian ezarritako barne-kontrol guztiak egin diren ere egiaztatuko da.

### **3.1.2. Espezialitateak:**

#### **3.1.2.1. 0 eta 600 euro arteko kontratuak**

600 eurora arteko kontratazioetan (zenbateko hori barne), kontratazio txikiak izanik, nahikoa izango da eskaintza eta dagokion faktura artxibatzea, eta ez da aplikatuko A eredu sinplifikatuetarako ezarritako prozedura.

#### **3.1.2.2. Internet bidezko atxikitze-kontratuak (600 eta 17.999,99 euro arteko zenbatekoak)**

Europar Batasuneko estatu kideen edo hirugarrenen web-orrietan Internet bidez formalizatutako atxikitze-kontratuen kasuan, atxikitze-kontratuak izanik, ez da eskaerarik bidaliko.

#### **3.1.2.2.1. Kontratazioaren premia**

Eskatzaileak kontratazioaren premia prestatuko du, eta dagokion arduradun nagusiak eman beharko du horretarako baimena.

Premiaren deskribapenaren arabera, kontratazio-zerbitzuko langile baimenduak baliozkotuko du (ala ez) aplikatuko den kontratazio-eredua, eta zuzendaritza-batzordearen gain utziko du erabakia.

### **3.1.2.3. Adjudikazioa eta kontratazioa**

Eskaeraren arduradunak gaitasuna duen enpresaburu bati eskatu behar dio eskaintza bakar bat egiteko.

Ez da beharrezkoa baldintza-agiriak prestatzea ez publiko egitea.

Eskatzaileak adjudikazio-proposamen bat ere egin beharko du kontratazio-eskaeran, eta bertan zehaztuko ditu Internet bidezko erosketaren informazioa eta zenbatekoa.

Mezu elektronikoko bidez oharra bidaliko zaio Administrazio buruari, bertara jotzeko esteka eta guzti.

### **3.1.2.4. Eskaera/kontratua kudeatzea**

Kontratazio-zerbitzuko langile baimenduek eskaera/kontratua eta, halakorik egonez gero, beharrezko informazioa ere bidaliko diote hornitzaile adjudikaziodunari. Eskaera hori barruan sortuko da, horrelako kontratuei buruzko kontrol-neurri gisa; izan ere, atxikitze-kontratuak izanik, Internet bidez egindako erosketarekin onartzen baitira kontratazio-baldintzak, bertan azaldutako informazioaren arabera.

Publiko egin beharreko kontratuak direnean, EJIE SAREN kontratatzailearen profilean egingo da publiko adjudikazioa.

Eskatzailea izango da exekuzioaren kontrolaren arduraduna:

- Harrera egitean egiaztatuko da (harrera osoa edo partziala egitean).
- Lanak exekutatu bitartean egingo da jarraipena.

### **3.1.2.5. Eskaera/kontratua egiaztatzea**

Eskuratu den produktu edo zerbitzua eskatutakoarekin bat datorren egiaztatuko du eskatzaileak. Harrera egiten denean egiaztatzen bada, eskaera ixteko unean dokumentatuko da egiaztatze-lan horren emaitza. Egiaztatze-lana zerbitzua eman bitartean egiten bada, bestalde, dena delako prozesuaren jarraipena egiten den bitartean egingo da kontrola.

Kasu batean zein bestean, bat ez etortzeak gertatzen badira, kalitate-eskuliburuan esaten den moduan jardun beharko da.

Nolanahi ere, fakturak ordaindu aurretik, eskaeraren baldintza guztiak bete diren ziurtatuko da, eta [www.ejie.eu](http://www.ejie.eu) web-orrian argitaratuta dagoen "Kontratatze baldintza orokorrak" dokumentuko 2.4. zenbakian ezarritako barne-kontrol guztiak egin diren ere egiaztatuko da.

### **3.1.3. Publiko egin beharreko kontratazio-eredu sinplifikatua**

Kontratu-eredu honi atxikita daude 50.000,00 euro eta 200.000,00 euro arteko balio zenbatetsia duten obra-kontratuak.

Eta 18.000,00 eta 50.000,00 euro arteko balio zenbatetsia duten hornidura- eta zerbitzu-kontratuak.

Hauek dira kontratazio-eredu honen prozedura-faseak:

#### **3.1.3.1. Kontratazioaren premia**

Eskatzaileak kontratazioaren premia prestatuko du, eta arloko zuzendariak edo dagokion arduradun nagusiak eman beharko du horretarako baimena.

Premiaren deskribapenaren arabera, kontratazio-zerbitzuko arduradunak baliozkotuko du (ala ez) aplikatuko den kontratazio-eredua, eta zuzendaritza-batzordearen gain utzi ahal izango du baliozkotu gabe dauden premiei buruzko erabakia.

Eskaeraren arduraduna izendatuko da. Eskatzailea bera edo kontratazio-zerbitzuko langile baimenduren bat izan daiteke arduradun hori.

#### **3.1.3.2. Adjudikazioa eta kontratazioa**

Eskaera egiteko ardura duenak, honako hauek egin beharko ditu:

- √ Zehaztapenen dokumentua egingo du, eskaintza formulatzeko. Bertan, adjudikazioduna hautatzeko irizpideak jasoko dira, eta eskaintza ekonomiko onuragarriena edo preziorik baxuena duena aurkitzea izan behar dute xede.

Honako hauek dira prozedura horren ezaugarriak:

- Publiko egin beharreko eta negoziatorik gabeko prozedura da. Kontratazio Sailak egiten du publiko EJIEn kontratatzailearen profilean eta Eusko Jaurlaritzaren kontratazio-plataforman.
- Litzitazioa irekia eta publiko egin beharrekoa da. Gutxienez 7 egun balioduneko epea ezartzen da eskaintzak jasotzeko.
- Litzitazioa elektronikoa izango da bakarrik, eta bermatu egingo da dokumentazioaren segurtasuna eta konfidentzialtasuna. Bi gutun-azal/artxibo aurkeztuko dira: A gutun-azala (gaitasun eta kaudimenaren

dokumentazioa eta eskaintza teknikoa, hau da, balio-iritzi batean oinarrituta aplikatu beharreko irizpideak) eta B gutun-azala (eskaintza ekonomikoa edo/eta irizpide objektiboak).

Honako hauek dira faseak:

- Eskatzaileak zehaztapenen dokumentua prestatuko du, aplikatu beharreko eredu arautuaren arabera.
- Arloko zuzendariak edo dagokion arduradunak baliozkotuko du zehaztapenen dokumentua.
- Ondoren, irizpideak egingo dira zuzendaritza-batzordeari jakinarazteko.
- Zuzendaritza-batzordeak eta kontratazio-organoak onetsi ostean, Kontratazio Sailak [www.ejie.eus](http://www.ejie.eus) web-orrian egingo ditu publiko, kontratatzailearen profilean, eta gutxienez zazpi egun balioduneko epea emango da eskaintzak aurkezteko.
- Eskaintzak ireki ondoren, baloratzeko txosten teknikoa egingo du eskatzaileak, ezarritako irizpideen eta adjudikazio-proposamenaren arabera, eta arloko zuzendariak edo dagokion arduradunak baliozkotu beharko du.
- Kontratazio Sailak eskaintza ekonomikoa onuragarriena edo preziorik baxuena duena egin duen lizitatzaileari idatziz eskatuko dio aurkez dezala zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzeko dokumentazioa, bai eta, kontratua hasi aurretik, eskatzen zaion gainerako dokumentazioa ere.
- Dokumentazio guztia jaso ondoren, kontratazio-zerbitzuko langile baimenduei emango zaie.
- Kontratazio-zerbitzuko langile baimenduek publiko egingo dituzte bai adjudikazioa eta bai formalizazioa.

### **3.1.3.3. Eskaera/kontratua kudeatzea**

Kontratazio-organoak eskaera/kontratua onetsiko du, sinaduraren bidez.

Kontratazio-zerbitzuko langile baimenduek eskaera/kontratua eta, halakorik egonez gero, beharrezko informazioa ere bidaliko diote hornitzaile adjudikaziodunari, eta EJIE SAREN kontratatzailearen profilean egingo dute publiko adjudikazioa.

Kontratazio-zerbitzuko langile baimenduek kontratatatu den produktu edo zerbitzua nola egiaztatuko den zehaztuko dute eskatzailearekin batera:

- Harrera egitean egiaztatuko da (harrera osoa eta partziala egitean).
- Lanak exekutatu bitartean egingo da jarraipena.

### **3.1.3.4. Eskaera/kontratua egiaztatzea**

Eskuratu den produktu edo zerbitzua eskatutakoarekin bat datorren egiaztatuko du eskatzaileak. Harrera egiten denean egiaztatzen bada, eskaera ixteko unean dokumentatuko da egiaztatze-lan horren emaitza. Egiaztatze-lana zerbitzua eman bitartean egiten bada, bestalde, dena delako prozesuaren jarraipena egiten den bitartean egingo da kontrola.

Kasu batean zein bestean, bat ez etortzeak gertatzen badira, kalitate-eskuliburuan esaten den moduan jardun beharko da.

Nolanahi ere, fakturak ordaindu aurretik, kontratistak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela ziurtatzeko eskatuko da; halaber, eskaeraren baldintza guztiak bete diren ziurtatuko da, eta

[www.ejie.eu](http://www.ejie.eu) web-orrian argitaratuta dagoen “Kontratatzeko baldintza orokorrak” dokumentuko 2.4. zenbakian ezarritako barne-kontrol guztiak egin diren ere egiaztatuko da.

### 3.1.4. Erregulazio harmonizatukoa ez den kontratazio-eredu irekia

Kontratu-eredu honi atxikita daude 200.000,00 euro eta 5.224.999,99 euro arteko balio zenbatetsia duten obra-kontratuak.

Eta 50.000,00 eta 208.999,99 euro arteko balio zenbatetsia duten hornidura- eta zerbitzu-kontratuak.

Hauek dira kontratazio-eredu honen prozedura-faseak:

#### 3.1.4.1. Kontratazioaren premia

Eskatzaileak kontratazioaren premia prestatuko du, eta arloko zuzendariak edo dagokion arduradun nagusiak eman beharko du horretarako baimena.

Premiaren deskribapenaren arabera, kontratazio-zerbitzuko langile baimenduak baliozkotuko du (ala ez) aplikatuko den kontratazio-eredua, eta zuzendaritza-batzordearen gain utzi ahal izango du baliozkotu gabe dauden premiei buruzko erabakia.

Kontratazio-zerbitzuko langile baimenduak izango dira eskaeraren arduradunak.

#### 3.1.4.2. Adjudikazioa eta kontratazioa

- Kontratazio-eredu honen izapideak lizitazio elektronikorako bereziki egin den espedientearen bitartez egingo dira.
- Eskatzaileak baldintza teknikoek agiria prestatuko du, aplikatu beharreko eredu arautuaren arabera.
- Kontratazio-zerbitzuko langile baimenduek baldintza zehatzen agiria prestatuko du dute. Baldintza-agiria idazteko, eskatzailearen laguntza jaso dezakete, beharrezkotzat jotzen dituzten alderdi guztietan.
- Arloko zuzendariak edo dagokion arduradunak baliozkotuko du proposatutako baldintza teknikoek agiria. Ondoren, kontratazio-organismoak baldintza teknikoek agiria eta baldintza zehatzen agiria onetsiko ditu eta, gero, zuzendaritza-batzordeari jakinaraziko zaizkio. Hori egin ostean, [www.ejie.eus](http://www.ejie.eus) web-orrian egingo dira publiko, kontratatzailearen profilean, eskaintzak jasotzeko epemuga amaitu baino hamabost egun lehenago. (Presazko kasuetan, gehienez erdira murriztu daiteke epemuga, eta obra-kontratuak direnean, hogeita zazpi eguneko izango da epea). Publiko egiteko tresna osagarritzat hartuko da iragarkia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea. Hori egiten baldin bada, gutxienez, eskaintzak jaso baino hamabost egun lehenago egin beharko da (obra-kontratuak baldin badira, hogeita hamar egun).
- Egin diren eskaintzak jasoko dira, eta adjudikazio-proposamena egiteko eskatuko zaio eskatzaileari; horren barruan, egin diren eskaintzak baloratzeko txosten teknikoa sartu behar da, eta txosten hori arloko zuzendariak edo dagokion arduradun nagusiak baliozkotuta egon beharko da. Adjudikazio-proposamena jaso eta baliozkotu beharko da; bertan, eskaintza ekonomiko onuragarriena adierazi beharko da.
- Eskatzailearen arloko zuzendariak kontratazio-eskaera baimenduko du (ala ez); baimendu egiten badu, eskaeraren berri emango zaio zuzendaritza-batzordeari.
- Eskaintza ekonomiko onuragarriena egin duen lizitatzaileri idatziz eskatuko zaio hamar eguneko epean aurkez dezala zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzeko dokumentazioa, bai eta, kontratua hasi aurretik, eskatzen zaion gainerako dokumentazioa ere.
- Dokumentazio guztia jaso ondoren, kontratazio-zerbitzuko langile baimenduei emango zaie.
- Kontratazio-zerbitzuko langile baimenduek publiko egingo dute adjudikazioa, adjudikazioa jakinarazteko dokumentuaren bidez.

### **3.1.4.3. Eskaera/kontratua kudeatzea**

Kontratazio-organoak eskaera/kontratua formalizatuko du, sinaduraren bidez.

Gehienez hamabost egun balioduneko epean formalizatuko da eskaera/kontratua, adjudikazioa lizitatzailerik eta hautagaierik jakinarazi eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita.

Kontratazio-zerbitzuko langile baimenduek eskaera/kontratua eta, halakorik egonez gero, beharrezko informazioa ere bidaliko diote hornitzaile adjudikaziodunari.

Kontratazio-zerbitzuko langile baimenduek kontratatu den produktu edo zerbitzua nola egiaztatuko den zehaztuko dute eskatzailearekin batera:

- Lanak exekutatu bitartean egingo da jarraipena.
- Harrera egitean egiaztatuko da (harrera osoa eta/edo partziala egitean).

### **3.1.4.4. Eskaera/kontratua egiaztatzea**

Eskuratu den produktu edo zerbitzua eskatutakoarekin bat datorren egiaztatuko du eskatzaileak. Harrera egiten denean egiaztatzen bada, eskaera ixteko unean dokumentatuko da egiaztatze-lan horren emaitza. Egiaztatze-lana zerbitzua eman bitartean egiten bada, bestalde, dena delako prozesuaren jarraipena egiten den bitartean egingo da kontrola.

Kasu batean zein bestean, bat ez etortzeak gertatzen badira, kalitate-eskuliburuan esaten den moduan jardun beharko da.

Nolanahi ere, fakturak ordaindu aurretik, kontratistak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela ziurtatzeko eskatuko da; halaber, eskaeraren baldintza guztiak bete diren ziurtatuko da, eta [www.ejie.eu](http://www.ejie.eu) web-orrian argitaratuta dagoen “Kontratatze baldintza orokorrak” dokumentuko 2.4. zenbakian ezarritako barne-kontrol guztiak egin diren ere egiaztatuko da.

## 3.2 Beste prozedura batzuk

### 3.2.1.Esparru-akordioak

#### Kontratatorako arrazionalizazio teknikoak. Esparru-akordioaren ereduaren prozedura

«Esparru-akordioa» izeneko kontratazio-eredua honako egoera honetan erabiltzen da: enpresaburuen aurretiko hautaketa bat egin (betekizun tekniko batzuk ezarrita) edo enpresaburuen poltsa bat sortu nahi denean, geroago enpresaburu horiekin sinatzeko kontratuak.

Prozedura bi fasetan egingo da:

- Enpresaburuak hautatu
  - Kontratuak egin aurretiaz esparru-akordioa sinatu duten enpresaburuekin.
- 
- Enpresaburuen aurretiko hautaketa. Fase honen helburua da denboraldi zehatz batean adjudikatuko diren kontratuetan ezarri beharreko baldintzak zehaztea, betiere, prozedura hau ez bada ohiko gisa edo neurritz kanpo erabiltzen, eta ez bada oztopo, muga edo jokaera faltsua lehiakideentzat. Esparru-akordioak lau urte iraungo du gehienez.
  - Esparru-akordioa egitea. Kontratazio-eredu irekia erabili beharko da esparru-akordioa egiteko (kontratuzio barne-jarraibideetako 3.1.2.5 puntuan deskribatutakoaren arabera). EJI Eren kontratatzailearen profilean eta Eusko Jaurlaritzaren kontratatzailearen profilean egingo da publiko akordioa.
  - Esparru-akordioan oinarritutako kontratuak adjudikatzea. EJI Eren kontratazio-organoaren eta alde aurretik hautatutako enpresen artean baino ezin izango dira egin kontratu horiek. Alderdiek ezin izango dute aldaketa garrantzitsurik egin esparru-akordioaren baldintzetan. Enpresaburu bakar batekin egiten baldin bada, idatziz eskatu ahal izango zaio enpresaburu horri eskaintza osatu dezala. Akordioa enpresaburu batzuekin egin baldin bada, akordioan ezarritako baldintzei jarraituta egingo da kontratuen adjudikazioa, eta alderdiei ez zaie beste deialdirik egin behar izango beste lizitazio batean parte har dezaten.

Adjudikatu behar den kontratu bakoitzeko, idatziz kontsultatuko zaie kontratu horren xedea bete dezaketen enpresaburu guztiei. Dena den, kontratazio-organoak esparru-akordioa enpresaburu guztiei galdera egin beharrean, gutxienez hiru enpresabururi egin ahal izango die kontsulta; betiere, hori egitea egokitzat eta espedientean justifikaturik dagoela jotzen badu. Behar besteko denbora eskainiko da berariazko kontratu bakoitzerako eskaintzak aurkezteko, besteak beste, honako faktore hauek kontuan hartuta: kontratuaren xedearen konplexutasuna eta eskaintzak bidaltzeko beharrezko denbora.

Eskaintzak idatziz aurkeztuko dira, eta edukia konfidentziala izango da eskaintzak ireki arte.

Esparru-akordioan ezarritako irizpideen arabera eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileari adjudikatuko zaio kontratua.

Kontratazio-organoak egokitzat jotzen baldin badu, adjudikazioa publiko egitea erabaki ahal izango da. (EJI Eren kontratatzailearen profilean). Kontratua formalizatzeke, epe zehatzak bete beharko dira.



### 3.2.2. Lehia-elkarrizketa

Prozedura honetan, hautagaiek eskatuta, kontratazio-organoak elkarrizketa bat izaten du hautagaiekin, premiei erantzuteko irtenbide bat edo gehiago garatzeko asmoz, irtenbide horiek izango baitira oinarri hautagaiek eskaintza aurkez dezaten. Hobari edo ordain bat ezar daiteke, elkarrizketan parte hartzen dutenei emateko.

Bereziki konplexuak diren kontratuetan erabiltzeko dago pentsatuta prozedura hau. Ondore horietarako, kontratu bereziki konplexua dela joko da, SPKLTBn ezarritakoaren arabera, kontratazio-organoak objektiboki gaitasunik ez duenean zehazteko zeintzuk diren bere premiei erantzuteko baliabide tekniko egokiak.

SPKLTBren 179. artikulutik 183. artikulura bitartean ezarritakoak arautuko du prozedura.

## 1. eranskina – Glosarioa

- **EHAA**- Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria
- **EBAO**- Europar Batasunaren Aldizkari Ofizia
- **EKAB**- Europako Kontratazio Agiri Bakarra
- **Balorazio teknikoaren txostena**- Balorazio teknikoak biltzen dituen txostena, baldintza teknikoaren agiriaren ezarritako irizpide teknikoak aplikatuta.
- **Adjudikazio-proposamena**- Balorazio teknikoak eta ekonomikoak biltzen dituen txostena, baldintza-agirietan ezarritako irizpideen arabera. Gainera, adjudikaziodun bat edo batzuk (sortak direnean) proposatzen dizkio kontratazio-organoari.
- **Kontratazio-mahaia**- Kide anitzeko organoa da, eta, batez ere, teknikariek eta arlo juridiko langileek osatzen dute. Lizitazioaren prozedura behar bezala garatzen dela ziurtatzeko helburua dauka, eskaintza ekonomiko onuragarriena lortzeko xedez. Aholkuak ematen dizkio kontratazio-organoari, baina ez dio ordeztzen ebazpen-eginkizunetan.
- **PANAP**- Administrazio Publikoa ez den botere adjudikatzaila.
- **Eskatzailea**- Kontratuaren arduradun teknikoa da. Kontratazio-prozedurari hasiera ematen dio, erosteko premia antzematearen ondorioz.
- **BTA**- Baldintza teknikoaren agiria
- **BZA**- Baldintza zehatzen agiria
- **SPKLTB**- Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi zena.

EJIEren kontratazio-prozedura guztiak era berean eta dokumentu batean sistematizatzeko xedez, barneko informazio gisa erantsi zaio dokumentu honi erregulazio harmonizatuko kontratuen prozedura; kontratu horiek nahitaez bete behar dute SPKLTBk kontratu-mota horretarako ezartzen duen guztia.

### 1. Erregulazio harmonizatuko kontratazio-eredu irekia

Kontratu-eredu honi atxikita daude balio zenbatetsi hau duten kontratuak:

- 5.225.000,00 euro edo gehiagoko obra-kontratuak.
- 209.000,00 euro edo gehiagoko gainerako kontratuak.
  
- Kontratazio-prozeduraren jarduketak:

#### 1.1. Kontratazioaren premia

Eskatzaileak kontratazioaren premia prestatuko du, eta arloko zuzendariak edo dagokion arduradun nagusiak eman beharko du horretarako baimena.

Premiaren deskribapenaren arabera, kontratazio-zerbitzuko langile baimenduak baliozkotuko du (ala ez) aplikatuko den kontratazio-eredua, eta zuzendaritza-batzordearen gain utzi ahal izango du baliozkotu gabe dauden premiei buruzko erabakia.

Kontratazio-zerbitzuko langile baimenduak izango dira eskaeraren arduradunak.

#### 1.2. Adjudikazioa eta kontratazioa

- Eskatzaileak baldintza teknikoen agiria prestatuko du.
- Kontratazio-zerbitzuko langile baimenduek baldintza administratiboen agiria egingo dute.
- Arloko zuzendariak edo dagokion arduradunak baliozkotuko du proposatutako baldintza teknikoen agiria. Ondoren, kontratazio-organoak baldintza teknikoen agiria eta baldintza zehatzen agiria onetsiko ditu eta, gero, zuzendaritza-batzordeari jakinaraziko zaizkio. Hori egin ostean, EBAOn eta [www.ejie.net](http://www.ejie.net) web-orrian egingo dira publiko, kontratatzailearen profilean (eta BOEn eta EHAAn ere, nahi izanez gero). Eskaintzak jasotzeko epemuga amaitu aurretiko honako epe hauek bete beharko dira (SPKLTBren 59. artikulua):
  - 52 eguneko epea
  - 36 eguneko epea, EBAOn alde aurreko iragarkia argitaratzen baldin bada. 22 eguneko epea, behar bezala justifikatutako ez-ohiko kasuetan.
  - Epe horiek laburragoak izan daitezke kasu hauetan:
    - 5 egun gutxiagokoa, baldintza-agiriak elektronikoki kontsultatzeko aukera eskaintzen denean.
    - Beste 7 egun gutxiagokoa, iragarkiak bide informatikoen bidez prestatu eta bidaltzen direnean.

- Iragarkia EBAOra bidaltzen den egunetik aurrera zenbatuko dira epeak.
- EJI E SAKo kontratazio-mahaia bilduko da. Mahaia osatzen dutenak, oro har, honako hauek dira, baldintza zehatzen agirian besterik ezarri ezean: mahaiburua (Administrazioaren eta Langileen arloko zuzendaria), idazkari bat (Kontratazioaren arloko arduraduna) eta mahaikide bat (kontratazio-espeditoarearen arloko zuzendaria edo eskatzaile arduraduna). Hasiera batean izendatu diren arduradunek beste pertsona batzuk eskuordetu ditzakete kontratazio-mahaia bileretara joateko.

### 1.3 Kontratazio-mahaia dagozkion jarduketak

- Kontratazio-mahaia, ekitaldi pribatua, eskaintza administratiboaren gutun-azalak irekiko ditu; horien edukia aztertuko du, eta, hala dagokionean, zuzentzeko moduko akatsak antzemanaz gero, hiru eguneko epea emango die lizitatuzaileei akats horiek zuzentzeko. Irekiera-ekitaldi horren akta egingo da.
- Behin akatsak zuzenduta, horrelakorik egonez gero, ekitaldi publikoan irekiko ditu kontratazio-mahaia irizpide ez-objektiboak edo formula bidez ebaluatu ezin daitezkeenak dituzten gutun-azalak. Horrez gain, baloraziorako talde teknikoari eskatuko dio irizpideak baloratzeko txosten teknikoak egin dezala (arloko zuzendariak edo dagokion arduradunak baliozkotuta). Irekiera-ekitaldi horren akta egingo da.
- Gero, irizpide ez-objektiboak baloratzeko txosten teknikoak jaso ondoren, kontratazio-mahaia, ekitaldi publikoan, irizpide objektiboekin edo formula bidez ebaluatu daitezkeenekin lotutako dokumentuak dituzten gutun-azalak irekiko ditu. Irizpide ez-objektiboaren balorazioa irakurri hasiko da ekitaldi hori, eta irekiera-ekitaldi horren akta egingo da.  
Kontratazio-mahaia baloraziorako talde teknikoari eskatuko dio eskaintzak baloratzeko behin betiko txosten teknikoak; eta arloko zuzendariak edo dagokion arduradunak baliozkotuta egon beharko du.
- Azkenik, kontratazio-mahaia eskaintzak baloratzeko behin betiko txosten teknikoak hartu eta baliozkotuko du (eta bertan jasota egongo dira formula bidez ebaluatu ezin daitezkeen irizpideak zein irizpide objektiboak edo formula bidez ebaluatu daitezkeenak). Ondoren, adjudikazio-proposamena egingo du, jasotako eskaintzen sailkapena zehaztuz, handienetik txikienera, dagokion baldintza-agirian aurreikusitako irizpideen arabera, eta eskaintzak baloratzeko behin betiko txosten teknikoari jarraikiz. Adjudikazio-proposamenaren berri emango zaio zuzendaritza-batzordeari, aurreko fasean aitortutako gaitasuna eta kaudimena egiaztatu ondoren (EKAB).
- Kontratazio-organoak errekerimendua egingo dio eskaintza ekonomiko onuragarriena edo preziorik baxuena duena aurkeztu duen lizitatuzaileari, hamar egun balioduneko epean, errekerimendua jaso eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita, dokumentazioa aurkez dezan ziurtatzeko kontratua exekutatzeko agindu zituen bitartekoak badituela, hala badagokio eskatzen den behin betiko bermea eratu duela, eta zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela, edo, azken kasu horretan, kontratazio-organoari baimena eman diezaion informazio hori zuzenean eskuratzeko. Errekerimendu hori adierazitako epean beteko ez balitz, lizitatuzaileak bere eskaintza bertan behera uzten duela joko da, eta eskaintzen sailkapen-ordenaren arabera hurrengoak den lizitatuzaileari eskatuko zaio dokumentazio bera.
- Dokumentazioa jaso eta bost egun balioduneko epean adjudikatu beharko du kontratua kontratazio-organoak (SPKLTBren 151. artikulua).
- Ez bada komeni adjudikazioa egitea, eskaintza ekonomiko onuragarriena edo preziorik baxuena duena aurkeztu duen lizitatuzaileak ez dituelako betetzen arestian aipatutako betebeharrak, beste adjudikazio-proposamen bat egin ahal izango zaie haren atzetik datozen lizitatuzaileei (edo lizitatuzaile bakarrari), egin dituzten eskaintzak sailkatzeko orduan izandako hurrenkera kontuan hartuta, baldin eta adjudikaziodun berria ados badago. Kasu horretan, hamar egun balioduneko epea emango zaio adjudikaziodunari aipatutakoa betetzeko.
- Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean eta EJI E SAREN kontratatzailearen profilean argitaratu beharko da adjudikazioa.

- Kontratua formalizatzearen bidez perfektionatu da kontratua (SPKLTBren 27. artikulua).
- EJIE SAK ezin izango du deklaratu lizitazio-prozedura bat hutsik geratu dela baldin eta baldintza-agirian ageri diren irizpideen arabera onargarria den eskaintza edo proposamenen bat badago.
- Proposamenak ireki eta BI HILABETEKO epean egin beharko da adjudikazioa.
- Ezarritako irizpide bakarra prezioa bada, proposamenak ireki eta 15 egun balioduneko epean egin beharko da adjudikazioa.
- Adjudikazioa ez bada epe horietan egiten, lizitatuzaileek beren proposamenak erretiratu ahal izango dituzte. Ezin izango da deklaratu lizitazio bat hutsik geratu dela baldin eta baldintza-agirian ageri diren irizpideen arabera onargarria den eskaintza edo proposamenen bat badago (SPKLTBren 151.3 artikulua).
- Kontratazio-organoak onetsi behar du adjudikazioa, zenbatekoaren arabera.
- Kontratazio-organoak egingo du adjudikazioaren ebazpena eta jakinarazpena.

#### 1.4 Eskaera/kontratua kudeatzea

Kontratazio-organoak eskaera/kontratua formalizatuko du, sinaduraren bidez.

Eskaera/kontratua formalizatu ahal izateko, lizitatuzaileei eta hautagaiei adjudikazioaren jakinarazpena bidali eta hamabost egun balioduneko epea igaro beharko da. Orduan, kontratua formalizatzeko errekerimendua egingo zaio adjudikaziodunari, eta gehienez bost eguneko epea emango zaio horretarako, errekerimendua jaso eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita, kontratazio-arloko errekurtsio berezia aurkezteko epea amaitu ondoren (SPKLTBren 156.3 artikulua).

Kontratazio-zerbitzuko langile baimenduek eskaera eta beharrezko informazioa bidaliko dizkiote adjudikazioa lortu duen hornitzaileari.

Kontratazio-zerbitzuko langile baimenduek kontratatatu den produktu edo zerbitzua nola egiaztatuko den zehaztuko dute eskatzailearekin batera:

- Zerbitzua eman bitartean egingo da jarraipena.
- Harrera egitean egiaztatuko da.

#### 1.5 Eskaera/kontratua egiaztatzea

Eskuratu den produktu edo zerbitzua eskatutakoarekin bat datorren egiaztatuko du eskatzaileak. Harrera egiten denean egiaztatzen bada, eskaera ixteko unean dokumentatuko da egiaztatze-lan horren emaitza. Egiaztatze-lana zerbitzua eman bitartean egiten bada, bestalde, dena delako prozesuaren jarraipena egiten den bitartean egingo da kontrola.

Kasu batean zein bestean, bat ez etortzeak gertatzen badira, kalitate-eskuliburuan esaten den moduan jardun beharko da.

Nolanahi ere, fakturak ordaindu aurretik, kontratistak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela ziurtatzeko eskatuko da; halaber, eskaeraren baldintza guztiak bete diren ziurtatuko da, eta [www.ejie.eus](http://www.ejie.eus) web-orrian argitaratuta dagoen “Kontratatzeko baldintza orokorrak” dokumentuko 2.4. zenbakian ezarritako barne-kontrol guztiak egin diren ere egiaztatuko da.

## 2. Kontratazio-eredua: Publiko egin beharreko prozedura negoziatua

Publiko egin beharreko prozedura negoziatuaren bidez adjudikatu daitezke kontratuak, baldin eta 200.000,00 euro eta 1.000.000,00 euro arteko balio zenbatetsia duten obra-kontratuak badira, edo 50.000,00 euro eta 209.000,00 euro arteko balio zenbatetsia duten gainerako kontratuak badira.

SPKLTBn ezarritako kasuetako bat aplikatu behar da:

- Kontratu-moten araberako kasuak: obra-kontratuak: 171 d) artikulua.
- Kontratu-moten araberako kasuak: hornidura-kontratuak: 173 f) artikulua.
- Kontratu-moten araberako kasuak: zerbitzu-kontratuak: 174 e) artikulua.

Kontratazio-eredu ireki harmonizatuarekin duen ezberdintasuna da eredu honetan negoziazio prozesu bat ireki daitekeela enpresaburuekin, eta, beste alde batetik, publiko egiteko epeak laburragoak direla.

Kontratazio-eredu ireki harmonizaturako ezarritako jarduera berberak aplikatzen dira, nahiz eta publiko egiteko epeak honako hauek diren:

- 37 egun lehenagoko epea, eta 7 egun murriztu daiteke iragarkiak bitarteko informatikoen bidez bidaltzen direnean, kontratuak erregulazio harmonizatukoak badira.
- 10 eguneko epea, kontratuak erregulazio harmonizatukoak ez badira.
- Iragarkia EBAOra bidaltzen den egunetik aurrera zenbatuko dira epeak.

## 3. Kontratazio-eredua: Prozedura murriztua

### 3.1 Kontratazioaren premia

Eskatzaileak kontratazioaren premia prestatuko du, eta arloko zuzendariak edo dagokion arduradun nagusiak eman beharko du horretarako baimena.

Premiaren deskribapenaren arabera, kontratazio-zerbitzuko langile baimenduak hautatuko du (ala ez) aplikatuko den kontratazio-eredua, eta zuzendaritza-batzordearen gain utzi ahal izango du baliozkotu gabe dauden premiei buruzko erabakia.

Kontratazio-zerbitzuko langile baimenduak izango dira eskaeraren arduradunak.

### 3.2 Kontratazioa eta adjudikazioa

- Eskatzaileak baldintza teknikoen agiria prestatuko du.
- Kontratazio-zerbitzuko langile baimenduek baldintza zehatzen agiria egingo dute, eta bertan kaudimen-irizpide objektiboak jasoko dira. Irizpideoi jarraituta aukeratuko dira hautagaiak, eta proposamenak aurkezteko gonbidapena egingo zaie. Era berean, ezarri egingo da zenbat enpresabururi egingo zaien prozeduran parte hartzeko gonbidapena gutxienez (bost) eta, hala badagokio, gehienez.
- Arloko zuzendariak edo dagokion arduradunak baliozkotuko du proposatutako baldintza teknikoen agiria. Ondoren, kontratazio-organoak baldintza teknikoen agiria eta baldintza zehatzen agiria onetsiko ditu eta, gero,

zuzendaritza-batzordeari jakinaraziko zaizkio. Hori egin ostean, EBAOn eta [www.ejie.net](http://www.ejie.net) web-orrian egingo dira publiko, kontratatzailearen profilean (eta BOEn eta EHAAn ere, nahi izanez gero). Eskaintzak jasotzeko epemuga amaitu aurretiko honako epe hauek bete beharko dira:

- o 37 eguneko epea, iragarkia EBAOran bidatzen denetik zenbatzen hasita, kontratuak erregulazio harmonizatukoak badira.
  - o Adierazitako epea 7 egun murriztu daiteke iragarkiak bitarteko informatikoen bidez prestatu eta bidaltzen direnean.
  - o 10 eguneko epea, iragarkia argitaratzen denetik, kontratuak erregulazio harmonizatukoak ez badira.
- EJI E SAKo kontratazio-mahaia bilduko da. Mahaia osatzen dutenak, oro har, honako hauek dira, baldintza administratiboen agirian besterik ezarri ezean: mahaiburua (Administrazioaren eta Langileen arloko zuzendaria), idazkari bat (Kontratazioaren arloko arduraduna) eta mahaikide bat (kontratazio-espeditzearen arloko zuzendaria edo eskatzaile arduraduna). Hasiera batean izendatu diren arduradunek beste pertsona batzuk eskuordetu ditzakete kontratazio-mahaia bileretara joateko.

### 3.3 Kontratazio-mahaia dagozkion jarduketak

- Kontratazio-mahaia, ekitaldi pribatuan, aurkeztutako dokumentuak irekiko ditu; horien edukia aztertuko du, eta, hala dagokionean, zuzentzeko moduko akatsak antzemanaz gero, hiru eguneko epea emango die eskatzaileei akats horiek zuzentzeko. Irekiera-ekitaldi horren akta egingo da.
  - Kontratazio-mahaia balorazioarako talde teknikoari eskatuko dio eskatutako kaudimena baloratzeko txosten teknikoa, eta, hala dagokionean, eskatzaileen balorazioa egin dezala (arloko zuzendariak edo dagokion arduradunak baliozkotuta).
  - Ondoren, kontratazio-mahaia, behin txosten teknikoa jasota, lizitatuak hautatzeko proposamena egingo du, jasotako eskaintzen sailkapena zehaztuz, handienetik txikienera, dagokion baldintza-agirian aurreikusitako kaudimen-irizpideen arabera, eta eskaintzak baloratzeko behin betiko txosten teknikoari jarraikiz.
  - Kontratazio-organoak, eskatzaileen nortasuna eta kaudimena egiaztatuta eta aipatu den txostenen oinarrituta, hurrengo fasera joango direnak hautatuko ditu. Hautatuko eskatzaileei aldi berean eta idatziz egingo die proposamenak aurkezteko gonbidapena. Proposamenak aurkezteko, honako epe hauek bete beharko dituzte (SPKLTBren 167. artikulua):
    - a) 40 eguneko epea, idatzizko gonbidapena bidali den egunetik zenbatzen hasita, kontratuak erregulazio harmonizatukoak badira. Epe hori bost egun murriztu daiteke baldintza-agiriak eta dokumentu osagarriak baliabide elektronikoen, informatikoen edo telematikoen bidez eskuratzeko aukera ematen denean. Aurretiko iragarkia bidali baldin bada, epea murriztu ahal izango da, oro har, 36 egun arte; edo, behar bezala justifikatu diren salbuespen batzuetan, 22 egun arte.
    - b) 15 eguneko epea, idatzizko gonbidapena bidali den egunetik zenbatzen hasita, kontratuak erregulazio harmonizatukoak ez badira.
  - Behin eskaintzak jasota, kontratazio-mahaia, ekitaldi pribatuan, irizpide ez-objektiboak edo formula bidez ebaluatu ezin daitezkeenak dituen gutun-azala irekiko du. Horrez gain, balorazioarako talde teknikoari eskatuko dio irizpideak baloratzeko txosten teknikoa egin dezala (arloko zuzendariak edo dagokion onuradunak baliozkotuta). Irekiera-ekitaldi horren akta egingo da.
  - Gero, irizpide ez-objektiboak baloratzeko txosten teknikoa jaso ondoren, kontratazio-mahaia, ekitaldi publikoan, irizpide objektiboekin edo formula bidez ebaluatu daitezkeenekin lotutako dokumentuak dituzten gutun-azalak irekiko ditu. Irizpide ez-objektiboen balorazioa irakurri hasiko da ekitaldi hori, eta irekiera-ekitaldi horren akta egingo da.
- Kontratazio-mahaia eskatzaileari eskatuko dio eskaintzak baloratzeko behin betiko txosten teknikoa egin dezala (arloko zuzendariak edo dagokion arduradunak baliozkotuta).

- Azkenik, kontratazio-mahaiak eskaintzak baloratzeko behin betiko txosten teknikoa hartu eta baliozkotuko du (eta bertan jasota egongo dira formula bidez ebaluatu ezin daitezkeen irizpideak zein irizpide objektiboak edo formula bidez ebaluatu daitezkeenak). Ondoren, adjudikazio-proposamena egingo du, jasotako eskaintzen sailkapena zehatzuz, handienetik txikienera, dagokion baldintza-agirian aurreikusitako irizpideen arabera, eta eskaintzak baloratzeko behin betiko txosten teknikoari jarraikiz. Adjudikazio-proposamenaren berri emango zaio zuzendaritza-batzordeari, aurreko fasean aitortutako gaitasuna eta kaudimena egiaztatu ondoren (EKAB).
- Kontratazio-organoak errekerimendua egingo dio eskaintza ekonomiko onuragarriena aurkeztu duen lizitatzailari, hamar egun balioduneko epean, errekerimendua jaso eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita, dokumentazioa aurkez dezan ziurtatzeko kontratua exekutatzeko agindu zituen bitartekoak badituela, hala badagokio eskatzen den behin betiko bermea eratu duela, eta zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela, edo, azken kasu horretan, kontratazio-organoari baimena eman diezaion informazio hori zuzenean eskuratzeko. Errekerimendu hori adierazitako epean beteko ez balitz, lizitatzailak bere eskaintza bertan behera uzten duela joko da, eta eskaintzen sailkapen-ordenaren arabera hurrengoan den lizitatzailari eskatuko zaio dokumentazio bera.
- Dokumentazioa jaso eta bost egun balioduneko epean adjudikatu beharko du kontratua kontratazio-organoak.
- Ez bada komeni adjudikazioa egitea, eskaintza ekonomiko onuragarriena aurkeztu duen lizitatzailak ez dituelako betetzen arestian aipatutako betebeharrak, beste adjudikazio-proposamen bat egin ahal izango zaie haren atzetik datozen lizitatzailari (edo lizitatzaila bakarrari), egin dituzten eskaintzak sailkatzeko orduan izandako hurrenkera kontuan hartuta, baldin eta adjudikaziodun berria ados badago. Kasu horretan, hamar egun balioduneko epea emango zaio adjudikaziodunari aipatutakoa betetzeko.
- Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean eta EJIE SAREN kontratatzailearen profilean egin beharko da publiko adjudikazioa.
- Eskaera/kontratua formalizatzearen bidez perfektionatuko da eskaera/kontratua.
- EJIE SAK ezin izango du deklaratu lizitazio-prozedura bat hutsik geratu dela baldin eta baldintza-agirian ageri diren irizpideen arabera onargarria den eskaintza edo proposamenen bat badago.
- Proposamenak ireki eta BI HILABETEKO epean egin beharko da adjudikazioa.
- Ezarritako irizpide bakarra prezioa bada, proposamenak ireki eta 15 egun balioduneko epean egin beharko da adjudikazioa.
- Adjudikazioa ez bada epe horietan egiten, lizitatzailak beren proposamenak erretiratu ahal izango dituzte. Ezin izango da deklaratu lizitazio bat hutsik geratu dela baldin eta baldintza-agirian ageri diren irizpideen arabera onargarria den eskaintza edo proposamenen bat badago.
- Kontratazio-organoak onetsi behar du adjudikazioa, zenbatekoaren arabera.
- Kontratazio-organoak egingo du adjudikazioaren ebazpena eta, ondoren, jakinarazpena.

### 3.4 Eskaera/kontratua kudeatzea

Kontratazio-organoak eskaera/kontratua formalizatuko du, sinaduraren bidez.

Eskaera/kontratua formalizatu ahal izateko, lizitatzailari eta hautagaiei adjudikazioaren jakinarazpena bidali eta hamabost egun balioduneko epea igaro beharko da. Orduan, kontratua formalizatzeko errekerimendua egingo zaio adjudikaziodunari, eta gehienez bost eguneko epea emango zaio horretarako, errekerimendua jaso eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita, kontratazio-arloko errekurtsio berezia aurkezteko epea amaitu ondoren.

Kontratazio-zerbitzuko langile baimenduek eskaera eta beharrezko informazioa bidaliko dizkiote adjudikazioa lortu duen hornitzaileari.

Kontratazio-zerbitzuko langile baimenduek kontratatu den produktu edo zerbitzua nola egiaztatuko den zehaztuko dute eskatzailearekin batera:

- Zerbitzua eman bitartean egingo da jarraipena.



- Harrera egitean egiaztatuko da.

### 3.5 Eskaera/kontratua egiaztatzea

Eskuratu den produktu edo zerbitzua eskatutakoarekin bat datorren egiaztatuko du eskatzaileak. Harrera egiten denean egiaztatzen bada, eskaera ixteko unean dokumentatuko da egiaztatze-lan horren emaitza. Egiaztatze-lana zerbitzua eman bitartean egiten bada, bestalde, dena delako prozesuaren jarraipena egiten den bitartean egingo da kontrola.

Kasu batean zein bestean, bat ez etortzeak gertatzen badira, kalitate-eskuliburuan esaten den moduan jardun beharko da.

Nolanahi ere, fakturak ordaindu aurretik, kontratistak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela ziurtatzeko eskatuko da; halaber, eskaeraren baldintza guztiak bete diren ziurtatuko da, eta [www.ejie.eus](http://www.ejie.eus) web-orrian argitaratuta dagoen “Kontratatze baldintza orokorrak” dokumentuko 2.4. zenbakian ezarritako barne-kontrol guztiak egin diren ere egiaztatuko da.

## 4. Esparru-akordioak

Kontratazio-erakundearen arrazionalizazio teknikoaren esparru-akordioaren ereduaren prozedura

«Esparru-akordioa» izeneko kontratazio-eredua honako egoera honetan erabiltzen da: enpresaburuaren aurretiko hautaketa bat egin (betekizun tekniko batzuk ezarrita) edo enpresaburuaren poltsa bat sortu nahi denean, geroago enpresaburu horiekin sinatzeko kontratuak.

Prozedura bi fasetan egingo da:

- Enpresaburuak hautatu
- Kontratuak egin aurretiaz esparru-akordioa sinatu duten enpresaburuarekin.
- Enpresaburuaren aurretiko hautaketa. Fase honen helburua da denboraldi zehatz batean adjudikatuko diren kontratuetan ezarri beharreko baldintzak zehaztea, betiere, prozedura hau ez bada ohiko gisa edo neurritz kanpo erabiltzen, eta ez bada oztopo, muga edo jokaera faltsua lehiakideentzat. Esparru-akordioak lau urte iraungo du gehienez.
- Esparru-akordioa egitea. Kontratazio-eredu irekia erabili beharko da esparru-akordioa egiteko (kontratazio-erakundearen barne-jarraibideetako 3.1.2.5 puntuan deskribatutakoaren arabera). EJIEn kontratatzailearen profilean eta Eusko Jaurlaritzaren kontratatzailearen profilean egingo da publiko akordioa.
- Esparru-akordioan oinarritutako kontratuak adjudikatzea. EJIEn kontratazio-erakundearen eta alde aurretik hautatutako enpresaren artean baino ezin izango dira egin kontratu horiek. Alderdiak ezin izango dute aldaketa garrantzitsurik egin esparru-akordioaren baldintzetan. Enpresaburu bakar batekin egiten baldin bada, idatziz eskatu ahal izango zaio enpresaburu horri eskaintza osatu dezala. Akordioa enpresaburu batzuekin egin baldin bada, akordioan ezarritako baldintzei jarraituta egingo da kontratuen adjudikazioa, eta alderdiei ez zaie beste deialdirik egin behar izango beste lizitazio batean parte har dezaten.

Adjudikatu behar den kontratu bakoitzeko, idatziz kontsultatuko zaie kontratu horren xedea bete dezaketen enpresaburu guztiei. Dena den, kontratazio-organoak esparru-akordioko enpresaburu guztiei galdera egin beharrean, gutxienez hiru enpresabururi egin ahal izango die kontsulta; betiere, hori egitea egokitzat eta espedientearen justifikaturik dagoela jotzen badu. Behar besteko denbora eskainiko da berariazko kontratu bakoitzerako eskaintzak aurkezteko, besteak beste, honako faktore hauek kontuan hartuta: kontratuaren xedearen konplexutasuna eta eskaintzak bidaltzeko beharrezko denbora.

Eskaintzak idatziz aurkeztuko dira, eta edukia konfidentziala izango da eskaintzak ireki arte.

Esparru-akordioan ezarritako irizpideen arabera eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzailerari adjudikatuko zaio kontratua.

Kontratazio-organoak egokitzat jotzen baldin badu, adjudikazioa publiko egitea erabaki ahal izango da. (EJIEren kontratatzailearen profilean). Kontratua formalizatzeko, epe zehatzak bete beharko dira.

## 5. Lehia-elkarrizketa

Honako egoera hauetan erabiliko da (SPKLTBren 180. artikulua):

- Bereziki konplexuak diren kontratuetan, kontratazio-organoak jotzen duenean prozedura irekia edo mugatua erabiltzea ez dela oso egokia kontratua behar bezala adjudikatzeko. Kontratu bereziki konplexua dela joko da kontratazio-organoak objektiboki gaitasunik ez duenean zehazteko zeintzuk diren bere premia edo xedeei erantzuteko baliabide tekniko egokiak (SPKLTBren 117.3 artikuluko b), c) edo d) letretan ezarritakoaren arabera), edo zehazteko zein izango den proiektu baten babes juridikoa edo finantza-babesa.
- 11. artikuluan zehaztuta dauden sektore publikoaren eta sektore pribatuaren arteko lankidetzakontratuak prozedura honen bitartez adjudikatuko dira, baina publiko egin beharreko prozedura negoziatua ere erabili ahal izango da 170 a) artikuluan ezarritako kasuan.
- Kasu horietan lehia-elkarrizketaren prozedura aplikatzea erabaki daiteke, eta prozedura horretan SPKLTBren 179. artikulutik 183. artikulura bitartean ezarritakoa beteko da.